

S.D. Lemona disolbidu egin da 79 urte eta gero zorrak dirala-eta

10. orrialdea

Intxaurbe Bizkaiko sega txapeldun

Jon Intxaurbe zeanuriztarrak jantzi dau 2012ko Bizkaiko segalarien txapela. Abadinoko Basaguren jatetxearen ondoko zelaietan jokatu zuen txapelketa garagarriaren 28an. Eguraldi freskoa egin eban, eta Arratia aldeko jente ugari hurreratu zuen. Jaime Atxa billaroztarrak hirugarren egin eban. 11. orrialdea



Abuztuaren 4an, goizean isiotuko dabe Karobia Otzerinmendin

12. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

168

2012ko abuztuaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Areatza, Zeanuri eta Zeberioko jaiak prest

Abuztuaren erdian Zeanuriko jaiak dira, andramariak, eta Areatzan hilaren 23an hasiko dira San Bartolome jaiak ospatuten. Zeberioko jaiak, barriz, urri lehenengoaren hasieran dira San Antolin jaiak, baina hile honetako 30ean hasiko dira.

Zer egin daiteken herri bakotxean jakiteko, BEGITUk, betiko moduan jaietako egitarauak dakar.

Erima inguru eta auzunetan be ospatuten dira jaiak. Egitarauak xumeagoak dira, askotan mezea eta barauskarria baino ez, baina giro berezia, sano bertokoa izaten da eta jentek disfrutau egiten dau. Hile

honetan santu askoren egunak ospatuten dira. Holan, hilaren 4an San Justo; 5ean, San Adrian; 10ean San Lorentzo; 15ean, Andra Mari; 16an San Roke eta 24an San Bartolome egunak dira. Santu batzuek ermita bat baino gehiago daukie gurean.

Jantza egiteko aukera zabala abuztuan. 5., 6. eta 7. orrialdeak



Zeanuriko Andra Mariak.

IGORRE

Negarran 30 behargin kaleratu ditue



Derrigor bete beharreko epaia jaso eban Negarrak garagarriaren 20an eta honen arabera 30 dira kaleratu behar diran beharginak. Hiru hilabete greba eta sindikatuen arabera "burruka eredu-garria"ren ostean, beharrera bueltau dira enpresa honetako beharginak.

Sindikatuak ez dagoz pozik epaia-gaz, honeen usteetan, kaleratzeak ez ziran beharrezkoak eta. 7. orrialdea

ARRATIA

Saturrararen egondako presoen memoria berreskuratu dau Leonek

2008tik aurrera UPV-EHUko Kriminologia Euskal Institutuko lantalde batek Saturrarango espetxearen inguruko ikerketa zabala egin eta liburu bat argitaratu eban. Ikerketa horretan lemoaztar baten espedientea agertzen da. Gerrearen 75. urteurrena gogoratzeko hirugarren erreportajea Ander Leon ikertzaileak berreskuratu ditu Arratiako memoria kolektiborako datu batzuk. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Igitie alkartea sortu da

Elikadura, bizitza eta lan baldintza eta konsumo duina bultzatzeko Igitie izeneko alkartea sortu da Arratiako Nekazari Agroekologikoen eta Konsumitzaile Barrien Lehenengo Topaketan. Garagarriaren 20an egin zuen topaketa eta han nekazaritza agroekologikoaren beharrianak identifikatu ziran. Honeen artean, nekazarien eta hareen produktuen zerrenda bat argitaratu eta plazaratzea eta lur bankua sortzea dagoz. 5. orrialdea



KANTU HERRIKOIAK

ELEUTERIOREN TXABOLAN

Eleuterioren txabolan
gosea franko izango da,
baita bere egarrie
dalako gizon baragarrie.

Eleuterio, Eleuterio,
Eleuterio, Eleuterioren txabolan.

Zeanuritik baraurik
urtetan badozu,
Gorbeiera orduko
damutuko jatzu.
Damutuko jatzu te
damutuko jatzu,
Zeanuritik baraurik
urtetan badozu.

Iturria: Bitoria Artetxe eta Paule Mendibil.

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

Eleuterioren txabolan

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

Garagamilaren 30etik abuztuaren 5era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 6tik 12ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 20tik 26ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

*** Adi udako ordutegiari**



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino taldea: Irune Garcia, Cristina Ruiz eta Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julien Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.600 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

ALICIA ALVAREZ

Eskerrik asko

Ukrania Gaztea alkartetik eskerrak emon gura deutseguz Zeanuriko Udalarari eta batez be Izaskun Sagarrena Mendia alkateari egin euskun harrera zoragarriagaitik eta emon euskuen laguntzeagaitik urtero udan etxean hartzean doguzan Txemobileko umeakaz egiten dogun ekintzea aurrera atera ahal izateko.

Tradizino, jai, kultura edo ingurumenaren aldetik gure herriko gauzarik adierazgarrienak erakusten saiatzen gara urtean-urtean. Aurten, Zeanurin bizi dan familia bat dagoanez alkatere honetan, Juan Jose Txurruka eta Bego, hain zuzen be, pentsau genduan sano aukera ona zala umeai hain ondo jagondako Saldropoko hezegune zoragarria eta bere inguruak erakustea, balorau arazoteko, altorra da eta.

Alkartearen bosgarren urteurrena be badanez, familia honek parte hartzera eta inguruak ezagutzera animau ginduzan, udalaren laguntzeagaz. Egunak euri mehatxua ekarren eta hezegunetik paseo bat emon ondoren eta Otzarretako harestia ezagutu eta gero Zenuirra joan ginan udaletxeko aterpean bazaltzera.

Asko ikasi genduan eta egun dibertigarria izan zan eta oroitzapen zoriontsuak gordetzen doguz.

Eskerrik asko danori.

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Jagon



Aditz honen esangura nagusiak hiru dira: Bat, txarto edo arriskuan dagoana zaindu edo babestu, gatx larrigorik izan ez dagian; bi, arauak bete edo legearen arabera jokatu; eta hiru, "patatea jagon" lokuzinoan zera esan gura dau: atera barrian, kamaran itxi ezker, patateak gustu hobea hartzean dau. Adjetiboa danean, barriz, honan erabilten da: "Horrek gizon jagonaren itxuririk ez dauka", ondo zaindu barik eta kargu hartu barik dagoalako.

Batuaz, Arratian esaten diran jagon eta "kargu hartu" aditzak baino zaindu erabilten da gehiago.

ERETXIA

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak % 11 murriztu dau herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partidea. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalak, apurka-apurka baina etenbarik iristen jakuz murrizketak, diskurso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bajaku be. Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dogulako euskerearen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunakana iristen garalako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura daukagulako. 27 milioe euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dogulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotox dakigu hori. Inoz baino ahalegin handiagoak egiten gabiz euskal hedabideok garai barri honeetara egokitzeko: diru iturri barriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta daukaguzan baliabideak optimizetako, alkarlanerako formula barriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez daukaguzan indarrak inbertiduten gabiz gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideak martian aurkeztu genduan sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituan dokumentua.

Inbertitduteko sasoi

Herri ekimeneko euskerazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeako eskaerea egiteaz gainera, eskaera zehatzak be ipini doguz erakundeen mahai gainean: diru laguntza politikea aldatu eta hitzarmen eredia ezarri dagiela, sektorean inbersinoak eta garapena sustatu

EIDER CARTON (ELHUYAR) MIKEL IRIZAR (TOKIKOM), JOANMARI LARRARTE (BERRIA TALDEA) ETA XABIER LETONA (ARGIA)

Herri ekimeneko euskal hedabideen izenean

dagiezala eta publizidade instituzionalaren banaketan hizkuntz erispideak pisu handiagoa izan dagiezala.

Horren barri emon deutsegu erakundeai (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta

Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta alkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktikea bestelakoa da: orain ezagutu dogun murrizketak ez deusku garapen bide horreetan sakontzen laguntzen eta, oindino txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan ipinten dau. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak % 40tik gorakoak be izatera iritsi dira.

Esandako moduan, badakigu sasoi gatxak dirana guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diran beste sektoreetan lez, honetan be erakundeak diru inbertidu behar dabe. Euskal hedabideok sasoi barrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbersino handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dogu jakiten zenbat eta noz jasoko dogun). Etorkizuna bermatuko daben inbersinoak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotea ezinbestekoa da.

Alkarlanerako deia

Horregaitik, alkarlanerako deia luzatu gura deutsegu barriro be Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeai. Danon agotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da atxakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen itzeko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean segiduko dogu, egoera barrietara egokitu eta kalidadezko euskerazko informazioa eskeintzeko. Erakundeai dei egin gura deutsegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dagien behingoz. Badakigu denpora latzak jatorkuzana, baina horregaitik, uste dogu inoz baino beharrezkoagoa dala orain arte egin eta konpartidu ez dogun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean ebatzi daigun zelako sektorea behar dogun, behin hau eginda beharrezko baliabideakaz hornitu daigun.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Torrea Iuzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrean beharrez,
euskeraz eginez*

Euskeraz
Batz on gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



JON URUTXURTU

Satsak,
hondakinak,
zaborrak...

Arriatiako mankomunidadeak argitaratzen dauan aldizkarian irakurri dotanez, hondakin organikoak batzeako 5. edukiontzia eukiko dogu. Albiste honek zaborren inguruan azken urteotan egin dogun ibilbidea dakart burura.

"Hartu eizuz suiteko satsak eta bota eizuz errekarra". Holan esaten eustan amak, umetan, etxeko satsarrak zabortegira eroateko. Hondakinez betetako ontzia hartzean neban eta barrukoa zubitik behera jaurtitzen neban. Errekea zan gure umezaroko zabortegia.


Demokraziaren etorrereagaz, ekologismoaren lehen zantzoak be heldu ziran eta udalak kamioi bat ipini eban astean pare bat bider satsarrak batzeako; geroago, 80ko hamarkadan, zabor guztia boltsa bakarrean jaso eta horretarako egokitutako ontzietara botaten hasi ginan; oraintsuago, aldiz,

gaika banandu eta jagokon edukiontzian ixten dogu. Eta aurrerantzean, hondakin organikoentzat 5. edukiontzia eukiko ei dogu.

Bai, asko aldatu dira urte gitxiren buruan sortzean doguzan hondakinak tratetako ohiturak. Halanda be, zaborrena da XXI. gizaldiko arazo handienetarikoa. Superpopulazioak, giza jarduerak, konsumismoak eta "erabili eta bota" lelopean bizi dan gizarteak ekarri dauan arazoaren artean zaborren hazkundera eta beragaz zer egin ez jakitea dagoz. Herrialde garatuetan egunero biztanle bakotxak kilo bat eta erdi hondakin sortzean ei dogu.

Argi dago, zaborrakaz jarraitzen doguzan jokabideetan aurrerapen handiak egin dirala, baina ez dira nahiko. Egia da, gero eta gehiago jotzen dogula gure hondakinak murrizten, bererabilten eta birziklatzen, baina arazoaren zutarrak hondakinen tratamantuan baino zeozer sakonagoan dagoz: herritarrok erantzukizunez jokatzean, erosteko ohitura barriak jarraitzean, agintariai eta enpresai neurri zuzenak eskatzean eta praktikan ipinten dabenezan, guk geuk kontuan hartzean...

ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE GARAI IURREBASO

"Ez begiratu atzera kabroia izorratzearen plazerra sentitu, erraietan" Kuraia - "Antigona"

ez du merezi ez dugu merezi alferrikakoa da dena amaitu da gerra ez dago klaserik, ez gatazkarik, ez kapitalismorik. Errendizioa, ezin ditugu gure buruak babestu, soilik geratzen zaigu armak entregatu eta disolbatzea.

Kartzela-delitua dakar protestak, bidetik ateratzeak. Kalea, etxetik zentro komertzialera joateko bidea baino ez.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Bero-kolpea

Irabazi dute. Galdu dugu. Katea eman digute gure buruak katea ditzagun, katea gaitezen, eta gure buruak u(r)katu

baina... badira errealitatea zulatzea aukeratu dutenak gauzak beste modu baten egin daitezkeelako, egin behar direlako, merezi dugulako.

Errealitatea zulatzen dutenak; asfaltoaren azpian, hondartza dagoelako.

BEGI TXINDORRA

Islandian ateratako bere lagun lanirenen argazkia bialdu deusku Nerea Larreak. Paisaje zoragarriak, jente gitxi, isiltasuna... merezidu ei dau Islandara joatea. Gainera, bero handirik ez ei dau egin han, uda izan arren lpar polotik hur egon dira gure lagunak eta.

Nerea Larrea eta lanire de la Calvak Islandiatik bialdutako argazkiak dira momentuz jaso doguzan bakarrak; nahiz eta jakin badakigun arratiarrok mundu zabalean egon zariena. Hemen geratu zarienok be talentu handia izanda, seguru gagoz argazki ederrak egin dozuezala. Argazki horreen zain gagoz.

Aurten egindako argazkiak izan behar dira, persona bakotxak hiru argazki gehienez bialdu ahal dauz eta noz, non eta nork atera dituan esan behar da.

Ez ahaztu saria persona birentzako astegoien bat Nafarroako landetxe baten dala: paisaje zoragarriak, lasaitasuna eta isiltasuna gozatuten segiduteko.



 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone - Bizkaia
T. 94 631 30 39

Halegaitu Zentrua, 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ZEANURI

Hiru zubietan hasiko da jaia eta hiru zubietan amaituko da

Abuztuaren erdian heltzean jakuz Zeanuriko jaiak: andramariak. Aurreko astegienean hasiko dira ospakizunak, hilaren 11n, zapatu eguerdian.



Kalejireia Zeanurin.

Erredakzinoa

Gaua gazteena izango da, kuadrilen aurkezpena, kontzertuak eta erromeria egongo dira gau horretan gazteak gorputza astindu daien. Hurrengo eguna jubila-duai eskeiniko jakie eta hurrengo-ua umeai. San Roke eguna, sukaldari-eguna izango da eta paella eta tortillen usainak hartuko dabe Zeanuriko herria. Gainera, aurten, etxean egindako bizkotxorik go-zenak be izango dau saria.

Abuztuak 11, zapatua

Gazteen gaua
07:30ean Gorbeia igoera.
12:30ean, herriko eskupelota txapelketako finala.
15:00etan, herri bazkaria plazan.
18:00etan, triki-poteoa eta kuadrilen arteko jokoak.
20:00etan, txupina eta kalejireia hiru zubietatik herriko txistulari, trikitilari eta buruhandiakaz. Ondoren, kuadrilen aurkezpena bertsoan, plazan.
23:00etan, kontzertuak Eskean

Kristo eta Vendetta taldeakaz plazan. Ostein, erromeria Luhartz taldeagaz.

Abuztuak 12, domekea

Jubiladuen eguna
11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:30ean, mezea Andra Mari parrokian.
12:30ean, bertso saioa eta jubiladuentzako barauskarria plazan.
13:00etan, II. Aipamen eguna.
17:30ean, pelota partiduak Ibarreta frontoian: Zeanuriko 50. txapelketako finalak.
19:00etan, kuadrilen arteko herri kirolak plazan.
22:00etan, Zeani Antzerki Taldeak *Hiru apurtute eta bat urrutute* antzezlana errepresentauko dau.
Abuztuak 13, astelehena
10:00etan, umeentzako parkea plazan.
13:00etan Bits jaia.
18:00etan, Zeani-Ubide futbol partidua Undurragan.

Abuztuak 14, martitena

Umeen eguna
11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.
12:00etan, umeen maratoi txikia.
17:00etan, Zeanuriko 50. eskupelota txapelketako finalak eta sari banaketea.
18:30ean, umeen futbito txapelketea.
20:00etan, salbea eta mezea Andra Mari parrokian.
22:30ean, play-backak plazan. Ondoren Drindots taldeagaz erromeria.

Abuztuak 15, eguaztena

Andra Mari eguna
11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:30ean, mezea Andra Mari parrokian.
18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXII. Txapelketea.
22:30ean, Kukai-Tanttaka Antzerki taldeak "Hnuy Illa" ikuskizuna eskeiniko dau frontoian. Ondoren, Hakker taldeagaz erromeria.

Abuztuak 16, eguena

San Roke eguna. Sukaldari-eguna
11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.
11:00etan, sukaldari lehiaketea: paellak, tortillak eta etxean egindako bizkotxoak.
11:30ean Mezea Andra Mari parrokian.
14:00etan, sukaldari lehiaketearen sari banaketea.
18:30ean, kuadrilen arteko jokoak eta mozorroak plazan.
21:00etan, Jokaldi taldeagaz jantzaldia. Ondoren, txokolatea eta hiru zubietatik jaien amaier-rea.

ARRATIA

Beste modu baten konsumitzeko Igitie alkartea sortu da

Erredakzinoa

Elikadura, bizitza eta lan baldintza eta konsumo duina bultzatzeko Igitie izeneko alkartea sortu da Arratiako Nekazari Agroekologikoen eta Konsumitzaile Barrien Lehenengo Topaketan. Igorren, garagarriaren 20an egin zan topaketa hau eta bertan, nekazaritza agroekologikoen beharri-zenak identifikau ziran. Honeen artean, nekazarien eta haren produktuen zerrenda bat argitaratu eta plazaratzea eta lur bankua sortzea dagoz.

"Beharrezkoa da antolatzea, indarrak biltzea, eta horregaitik sortu barri da Arratian nekazari agroekologikoen talde bat, Igitie. Alkarte honen helburua elikadura, bizitza eta lan baldintza eta konsumo duina bultzatzea da. Bertatik bertara ekoitzi eta konsumitzea, eta hasiera besterik ez dan arren, itxaropena dago sare sozial sendo eta sostengarri bat eratuko dala" azaldu deutso BEGITURI Iker Yurrebaso antolaitzaileetako batek.

Lur bankuak, formakuntza eta eskolako janlekuak

Ekoi-ze handiak zein txikiak, konsumo-taldeak osotutako asmoz dagozan lagunak eta gai-
interesaut-eta laguntzeko prest dagozan berrogei persona inguru batu ziran Igorren nekazaritza agroekologikoari bultzadea emoteko. Bertan, lur bankuen sorrera, formakuntza programazioa eta eskoletako janlekuen apostua landu ziran. "Batez be beharri-zenen mapea marraztu da. Udaletxeetan lurren egungo diagnosi erreala egin beharra, lur-bankuen sorrera bultzatu beharra eta instalau gura daben nekazari barri-zena lurra eskuragarri bihurtzea" dira lurragaz lotu-tako preminak bertaratutakoen eretxian. "Konsumitzaileen eta ekoizleen arteko hartu-emon zuzena be bultzatu behar da eta honetarako salmenta bideak aztertu eta landu behar dira, (ekonomatoak, atez-ateko salmenta...), azokak berbiztu eta beste herri eta eskualde batzuetan garatu diran esperientziak ezagutu" dino Yurrebasok.



Igorreko Kultur Etxean egindako topaketara hurreratutakoak.

ARRATIA

Begoñara erromesaldia Andra Mari bezperan

Erredakzinoa

Tradizinoak agindutako moduan, Andra Mari egunaren bezperan, abuztuak 14, hainbat arratiar oinez abiatuko dira Begoñarantz mezea entzuteko. Han, lehenengo mezea entzungo dabe goizaldeko 04:00etan lau orduko ibilaldia egin ondoren.

Baina gauza batzuk aldatu dira. "Ez da lehengo moduan. Orain ez gara danok batzean Igorren, baxotxa bere aldetik joaten da, bere lagun taldeagaz. Halanda be, asko gara Arratiatik joaten garanok eta aurten be holan izango dala espero dot" azaldu deutso BEGITURI Maribel Salcedo erromesak.

ARRATIA

Arratiarako bardintasun teknikaria kontratau dau mankomunidadeak

Erredakzinoa

Miren Urresti da Arratiako Udalen Mankomunitateak garagarri-lean kontratau eban bardintasun teknikaria. Diagnostikoa egin, protokoloari jarraipena emon eta bardintasun plana egingo

dau teknikariak. "Udal gehienak badaukienez plana, ekintzak bideratzen eta mankomunidadean eta udaletan genero ikuspegia sartzean lagundutea da nire eginkizuna" azaldu deutso BEGITURI Miren Urresti teknikari barriak.



Mankomunidadea.

ZEBERIO

Kontzertu maratoia jaietan

San Antolin jaiak dira Zeberion herriko jaiak. San Antolin eguna urri lehenengoaren 2an da baina jaiak abuztuaren azkenengo egunetan hasten dira eta horregaitik dakarguz oraingoan. Gorputza astinduteko aukera ez da faltauko Zeberion; izan be, urri lehenengoaren 1ean kontzertu maratoia egongo da arrastiko bost t'erdietan hasita. Zortzi taldek joko dabe egun horretan.



Zeberioko kontzertuetako kartela.



Erredakzinoa

Momentu serioak be egongo dira jaiotan, gertaera mingarriak alkarregaz gogoratzeko momentuak. Holan, hurrengo egunean, erailda agertu zan Laura Orueren oroimen ekitalditxo bat egingo dabe zeberioztarrak hilketaren XIII. urteurrena beteten danean.

Abuztuak 30, eguena

17:30ean, frontenis eta pala txapelketaren finalak.

19:00etan, jaien hasiera: txupina, Los Incansables txarangeagaz eta Txubel eta buruhandiakaz.

21:30ean, herri afaria: txahala errea.

23:00etan, erromeria Argi eta Iker taldeagaz.

Abuztuak 31, barikua

11:00etan, txirindulari lasterketea umeentzat: Santa Krutzetik plazara. Ondoren, plazan jokoak egongo dira.

12:00etatik **15:00**etara, umeentzako puzgarriak, ohe elastikoak eta zezen mekanikoa.

17:00etan, umeentzako jolasak: Altxorraren bila.

17:00etatik **19:00**etara, puzgarriak, ohe elastikoak eta zezen mekanikoa.

20:30ean, poteoa Orkestra taldeagaz.

23:00etan, kontzertuak Zea Mays eta Hesian taldeakaz.

Urri lehenengoak 1, zapatua

11:00etan, Osel Ozerinjuregi XVIII. memoria. Txirindulari lasterketea kadete mailan.

13:00etan, Zeberioko Musika Eskolako musikariak (gazteak).

14:00etan, tortilla, gisau eta makailao txapelketea.

17:30ean, kontzertu maratoiaren hasiera. Joxpa, Punto Muerto, Primeros Auxilios, Bidean Galduta, Vomito, Exaixu, Afu, Fiachras eta Feos pero Majos.

Urri lehenengoak 2, domekea

11:00etan, Zeberion Karran IV. Lasterketea. Izen-emotea: www.deporbox.com/evento/zeberiotik-karran. Ondoren bits jaiak.

11:00etatik **15:00**etara, truke azokea.

13:00etan, Laura Orueren aldeko XIII. urteurren mezea. Meza ostean barauskarria egongo da herriko plazan.

13:00etan, Zeberioko Musika Eskolako musikariak (helduak).

18:30ean, eskupelota partiduak Javier Uriaren IX. Memoria. **21:00**etan, Oihulari Klown antzerki taldearen eZINEMAn.

Urri lehenengoak 3, astelehena

12:00etan, rokodromoa.

14:00etan, poteoa trikitixeagaz.

15:00etan, indababak lagun artean.

ARRATIA

Gazteria eta bardintasunaren gaineko ikerketea

Erredakzinoa

Mankomunidadeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Arratian Gazteria eta Bardintasunaren gaineko ikerketa bat egitea ebatzi dabe. Proiektua Deustuko Unibersidadeak garatu dau, eta eskualdeko herri guztietako 250 gazteri egindako inkesta bategaz hasiko da. Errol-datuta dagozan gazteak, 15 eta 29 urte bitartekoak, 1.893 dira.

Ikerketeak andra eta gizonen bardintasunari jagokonean, gazteen perzeptzio mailaren barri jakiteko balioko dau. Emoitzak urtea amaitu aurretik emongo dira ezagutzera, eta, holan, udalak eta mankomunidadeak gai honen inguruan egiten dabezan ekimenak optimizau ahal izango dira.

Proiektuaren helburuak "genero-bardintasuna sustatzea gazteen artean; Arratiako gazteen genero-bardintasunaren gaineko ezagutza, baliok eta perzeptzioak aztertzea; gaiaren egoera konparetea andra eta gizonen bardintasunaren esparruan eta gazteriaren esparruan, Europa, Estadu, Autonomia Erkidego eta lurralde mailetan; Arratian esparru honetan dagoan alkarlan-sarea ikusgai bihurtzea; andra eta gizonen bardintasuna sustatzeko politiken ikuspegitik jasotako informazioa aztertzea; eta, azkenik, ekimenak aktibetea, udalak eta mankomunidadeak hurretik jakin dagien zeintzuk diran gazteen beharrianak, proiektuak martxan ipinteko orduan" dinoe mankomunidadeak.

IGORRE

LHko ikasleak praktikak egin ahal izango dabez Bridgestonen

Erredakzinoa

Garagarrilaren 10ean, Bridgestone Hispaniak eta Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak hitzamen bat sinatu eben, Lanbide Heziketako ikasleak praktikak egin ahal izateko enpresa honetan. Urte baterako da hitzarmena eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 20 bat ikaslek eukiko dabe aukera hori. Bridegestonek Igorren dauka beharleku bat.

IGORRE

Perez de Anuzita gose greban

Erredakzinoa

Igorresareanek jakitera emon dauanaren arabera, Valentziako Picassenteko kartzelan dagoan Igorreko Eduardo Perez de Anuzita gose greban hasi zan garagarrilaren 16an. Izan be, kartzelan izandako istilu batzuen ondoren Anuzitak modulukideen arrastoa galdu eban "eta lagunen barri izan arte, bere burua gose greban jarri eban". Familiakoak "seguridadekoak jipotu" ebela salatu dabe.

ARRATIA

AUM-ek eta Galdakaoko eta Zornotzako Udalak eskualdeko enplegu plana sustatuko dabe

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Galdakao eta Zornotzako Udalak alkarlanean egingo daben Eskualdeko Enplegu Plana aurkeztu eben garagarrilaren 27an. Proiektu honen bidez, eskualdeko lan egoera aztertuko dabe lan politikak bultzatzeko. Negozio aukerak bultzatzea eta eskualde honeetako enpresen lehiakortasuna hobetzea da planaren helburua. Arratian, Galdakaon eta Zornotzan 5.000 enpresa dagoz, EUSTATen arabera, eta 60.000 biztanle inguru.

Proiektuaren helburua "lan merkaduak sufridutako aldaketak sortutako desorekak gainditutea da. Eta horretarako plana, erakunde, gizarte eragile, enpresa eta beste entidadeen artean alkarlanean eta modu parte-hartzailean egingo da. Lan aukera honek epe ertain eta luzera begira eginda dagoz, eskualdeko arlo desbardinak, industria zein zerbitzuak kontuan izanda".

Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoaren Enplegu Estrategia 2011-2014 eta Lanbideren 2012ko Plan Operatiboaren barruan dago. Aurkezpenean Josune Gorospe mankomunidadeko presidentea eta parte hartzean daben udaletako ordezkariak egon ziran.

IGORRE

Hogeta hamar behargin kaleratu ditue Negarran

Erredakzinoa

Ia hiru hilabeteko grebaren ostean, garagarilaren 20an derrigor bete beharreko epaiaren arabera, Igorreko Negarra enpresako 30 behargin geratu dira kalean. Nahiz eta apirilaren 16an enpresek aurkeztu eban EREan 58 behargin kaleratzea proposatzen zan CCOO sindikatua ez dago pozik epai honegaz "guk uste dogu bideragarria zala gatazka konpontzea inor kaleratu barik, lanpostuak deseustatzea eskatzen ez zituen neurri koitunturalak hartuta" dinoe.

LAB sindikatua be erexi berekoa da. "Uste dogu neurritz kanpokoa izan dala ebatzia. Izan be, egoerea behin-behinekoa zan eta kaleratze

espedientea larregizkoa da. Epaiak patronalaren alde egin dau, enpresa komitearen alegazioak kontuan hartu barik" azaldu deutso BEGITURI Alex Azpiri LABekoak.

"Burruka eredugarria"

CCOO sindikatuaren arabera hiru hilabete honeetan Negarrako beharginak "burruka eredugarria egin dabe, erresistentzia eta solidaridadea erakutsiz patronalaren bidegabekeriaren aurrean". Izan be, enpresako 177 beharginak egin dabe greba luze hau eta 24 orduz egon da guardiko pikete bat atean.

Garagarilaren 23an greba amaitu eta euren lanpostuetara itzuli ziran beharginak.



Negarra enpresea.

ARRATIA

Trikitixa soinuak ermita eta auzuneetan

Erredakzinoa

Barauskarriak txistulari edo trikitilariak baino ez badira be, sano giro polita sortzean dabe gure ermiten inguruetan jaiak ospatuten diranean. Hile honetako lehenengo jaiak Dimako Artaungoak eta Zeanuriko Sanjustoak izango dira, hilaren 4an. Urtero lez, karobia piztuko dabe San Juston eta egun biko jai izango da. Abuztuaren 5ean, San Adrian ospatuko dabe Zeberioko Argiñan mezea eta barauskarriagaz. Hilaren 10ean, barriz, San Lorentzo jaiak -edo sanlontxoak- Bediako Murtatzen, Zeanuriko Otzerinmendir eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez. Honeetan guztioneetan mezea ermitan eta ondoren barauskarria egongo da. Andramariak, Igorren eta Zeberioan ospatuko dira, sanrokeak Dimako Olazabalen eta Bediako Eroso-Ugarten eta sanbartolomeak Zeberioko Uxarren eta Igorreko Urkuzun. Bediako ermitetan mezak 11:30ean izango

dira; Zeberiokoetan 13:00etan.

Sanlorentzoak Murtatza (Bedia)

Abuztuak 10, barikua
11:30ean mezea Murtatzen. Hamaiketako eta trikitixa. Mus txapelketea.
17:00etan Briska txapelketea.

Andramariak Igorre

Abuztuak 15, eguaztena

10:30ean, gazte mailako ziklista lasterketea 36. Andra Mari Sari Nagusia. Amaiera Agirre Lehendakaria kalean.
11:00etan, eskupelota partiduak goiko plazako frontoian.
12:40ean, barauskarria trikitilariak goiko plazan.
17:00etan, mus eta briska txapelketak bikoteka beheko plazan.
18:00etan, ugel txapelketea beheko plazan.
19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

AREATZA

Batukada txapelketea, gau suak eta tanborradea sanbartolomeetan

Mota guztietako musikak ipiniko deutsee soinu-bandea Areatzako

jaiak: batukadeak, tanborradeak, Areatzako Bandak, gau suen

sinfoniak eta zelan ez, kontzertuak, erromeriak eta Play-Backak.



Areatzako jaietako kartela.

Erredakzinoa

Billaroztarrak musika zaleak dira eta hori igarri egiten da herriko jaietan.

Abuztuak 23, eguena

14:00etan, txupina. Eleizako

kanpaiak, Areatzako txistulariak, Areatzako Buruhandi eta Erraldoiak eta Areatzako Banda.

17:00etan, Briska txapelketea Uparan Jubiladuen Elkarteak antolatuta.

18:30ean, Ehunzango batukada



Gora San Bartolomeak!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

taldea.

20:00etan, salbe herrikoa.

20:00etan, trapuzko eskupelota erakustaldia (umeak).

20:30ean, trapuzko eskupelota finala. Sari banaketaren ostean parte hartzaileentzat barauskarria Motxo tabernan.

23:00etan, erromeria Trikizio taldeagaz.

00:00etan, XIX Play Back lehiaketea.

Abuztuak 24, barikua

06:00etan, mortero jaurtiketea.

11:30ean, meza nagusia.

12:30ean, ohorezko aureskua.

12:45ean, herri kirol desafioa.

18:00etan, pelota partiduak.

23:00etan, tributo gaua. Ramonez, Gansos Rosas.

02:30etan, Disk Breakers.

04:00etan, txokolata "Herrira" taldeak emonda.

Abuztuak 25, zapatua

11:00etan, animen aldeko mezea.

12:00etan, Areatzako jantza taldea.

12:30ean, 3. adinekoentzako barauskarria.

17:00etan, Mus txapelketea Batzokian.

19:00etan, Tanborrada Txiki-ren kalejirea.

22:30ean, gau suak Astondoa pirotekniagaz.

23:00etan, kalejirea: Areatzako tanborradea, Areatzako maioretak, kuadrilen jeitsierea, Zirkale kale antzerkia.

00:00etan, erromeria Iratzar taldeagaz.

02:00etan, kalejirea Areatzako tanborradeagaz.

Abuztuak 26, domekea

13:00etan, meza nagusia.

14:00etan, makailao lehiaketea (aurkezpena) "Gorbeiko Gurutzeta" Athleticen peñak antolatuta.

17:00etan, ibilaldia bizikletan. Euskaltel Euskadi Iturrimorro Txirindularitza taldeak antolatuta.

18:00etan, tortilla lehiaketea (aurkezpena).

19:30ean, Los Estramboticos kale antzerkiaren *Kataplum* antzezlan Pedro Añibarro parkean.

23:00etan Areatzako Bandaren kontzertua Big Band musikea.

Abuztuak 27, astelehena

10:30etik 14:30era, umeentzako puzgarriak.

14:00etan, paella lehiaketea (aurkezpena).

17:00etan, Tute txapelketea Aldamin tabernan.

19:00etan, umeen Play Back lehiaketea.

21:00etan, afari herrikoa. Postrean, *El txou de Patxi* bakarriketea.

23:30ean, Mar-Isk-al Dejai disko festa.

00:00etan, azken txupina.

1936KO GERREAREN 75. URTEURRENA (III)

Saturrarango andra preso lemoaztar ha...

Gerra Zibileko irabazleak, 36ko garagarrileko matxina egin eben momentutik, argi eukien zein izango zan Espainia Barrian andrak bete beharreko papela: Etxeko erreginea, seme-alaben hezitzailea eta senarraren zaintzailea. Modu aktibo edo pasiboan orden barriaren kontra azaldu ziranak, II. Errepublikaren aldeko ekintzetan parte hartu ebenak edota momentu txar baten leku desegoki baten egozanak errepresino gogorra sufridu eben, askotan gizonetzkoarena bezain bortitza edo bortitzagoa. Dana dala, andren errepresinoak ezaugarri berezi batzuek bazituan.

Ander Leon Nanclares

Errepresino frankistearen ondorioak sufridu eban andra multzo handi bat ez zan espetxeratu edo atxilotu izan. Asko izan ziran, esate baterako, lan aukerarik bako alargunak edo miserian bizitera kondenauak "gorri" baten senideak izateagaitik. Beste askok familia ibiltariak osotu zituen, Espainiako geografian zehar moduz gizona, semea edo aitaren atzetik honeen ibilbide penitentiarioaren segmentua egiten. Kasu honeetan, askotan, duintasunik bako lanpostuak (prostituzinoa barne) bete behar izan zituen senideai espetxe barruan behar ebena emon ahal izateko. Andrak eta eurak bakarrik izan ziran kanpoko laguntza hau aurrera eroan ebenak. Alderantzizko kasurik ez da ezagutzen eta andra presoan kasuan askatasun falteari, bakardadea gehitu behar jako. "Espetxe barruan geure burua baino ez genduan" esaten eben.

Delituak

Atxilotutako andren artean, leporatutako delituari erreparatzen badeutsagu multzo handi bi egin daikaguz. Lehenengoan, araudi frankistearen arabera, legea apurtu ebenak daukaguz. Honeek, gizonak lez, errepublikearen alde edo faxismoaren kontrako burrukan nabarmendutako militanteak dira: abertzaleak, komunistak, sozialistak, anarkistak, feministak... burruka egin eben eta euren konpromiso mailaren barruan baekien errepresino gogorra jasoteko aukera handiak zituela. Euren ideologiagazko koherentziak etorkien patu iluna onartzen eben eta espetxe barruan, modu batean edo bestean, burrukeagaz segidutako asmoa azaltzen eben.

Errepresino zuzenaren biktimen bigarren taldea askoz ugariagoa izan zan. Delitu zehatzik ez jakien leporatzen, "ondoan" egoitea baizik. Errepublikazale baten andrea, alabea edo ama izatea nahikoa zan zoritarreko talde honetako kidea izateko. Egia da gizon batzuen kasuan horrelakorik gertatu zala, iges egindakoaren orde anai edo aita atxilotuz, baina andren kasua nabariagoa eta ugariagoa izan zan. Logika frankisteari jarraituz, gizonaren "propiedade" erasotuz saiatzen ziran iges egindakoa zigortzen.

Zigorrak

Arestian aitatu dogun bazterketa sozialaren kasuan lez, zigor asko espetxeko hormetatik kanpo gauzatzen ziran. Honeetako batzuk andrai bakarrik ezartzen jakiezan. Sexu bereizketa honek eta ekintza honeen sarritasunak zigor berezien bat-batekotasunaren teoria baztertzen dabe. Goitik planifikatutako eta agindutako mendekuak izan ziran.

Sasoiko andren ikur femeni-noena ule luzea zan, gizonandik bereizten zituana eta, askotan edertasunaren seinalea zana. Zigor ohikoenetako ulea moztea zan, burusoiltzea. Ulea kentzea, emakume kondizinoa ezabatzea zan, ia biluztea. Gainera denporan luze irauten eban iraina zan, uleak aurreko egoera berreskuratu arte hilabeteak behar zituan eta. Batzuetan, adar moduko xerlo bi ixten jakiezan demonio itxurea hartu eien, gorria-inperua loturea eginez. Sarritan, ule mozte honek publikoak ziran, adibidez, Gerra bitartean Areatzan egin ziranak herriaren oroimen kolektiboan dihardue.

Higienearen ukapena izan zan bigarren zigor motaren helburua. Rizino olio edanarazotearen on-



Saturrarango hondartzea.

torioak zikinkeria bikotxa erakutsi gura izan eben: alde batetik gorputzarena eta bestetik animarena. Espainia Barriko andra ereduariaren antitesia. Isabel Katolikoa edo Jesusen Teresaren garbitasunetik ezin urutiago kokatuak. Ikerlari batzuen arabera, ekintza honek, barruko demonioak ateratzearen ideagaz lotuta egozan, barriro inperua eta marxismoaren ideak alkartuz.

Andra gehienak ez zituen ezkutuan sufriduten aitatutako zigorrak. Duintasunaren ukape-

nean kokatu ahal doguz desfile publikoak, ulea moztea edo rizino olio edan eta geroko erakustaldiak herriko plazetan. Bizkaiko hainbat herritan jasotako testigantzetan ugariak dira gertaera honeen inguruko aitamenak. Helburu bikotxa eukien. Alde batetik andrak eta euren senideak zigortzea eta umiletea eta bestetik herritar neutralak izutzea, balizko etsaia zer gertatu lekien erregimenaren alde ez egozanai ikustarazotea.

Bortxaketak atal berezia me-

Lemoaztarraren ibilbidea
galtzean jaku 1938ko
bagilaren 25ean "beste
espetxe batera" eroan
ebelako

Areatzako plazan andrai
ezarritako zigorrak
herriaren oroimen
kolektiboan jarraituten
dabe

expert  **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

begitu **10**
urte
arratia ubide zebierio

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

 Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04



Saturraran.

rezidu dabe. Komisaldegietan, koarteletan edo espetxeetan ohiko gertaerak ziran. Gerra guztietan tresna moduan erabiliak izaki, Gerra Zibila ez zan salbuespena izan. Dana dala, horren gaineko testigantza zuzenak ez dira oso ugariak. Andra askok, lotsagaitik edo, bere baitan gorde izan ditue holango pasarte ilunak. Ezagutzen doguzan kasu gehienetan, bortxaketaren biktima izan ez dan beste andra batek kontautakoak dira, beti be argixten berari ez eutsiela ezer egin.

Beste batzuetan, bortxaketea eta hilketea alkarregaz dagozalako jakin izan doguz.

Espetxeak

Kanpoko zigorrak ezagututa, esan beharra dago espetxea izan zala, andrentzako zigorrak ohikoenak. Errepublikasasoiatik egozan kartzelak azkar bete ziran tropa frankistak hartutako preso kopuru handiari esker. Espainia Barria edozein eraikin egokitzen hasi zan prisino funtzioa beteteko. Biltegiak, zezen plazak, komentuak,

zinemak, futbol zelaiak... edozein lekuk balio eban presoan biltegia izateko. Testuinguru honetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko mugan, Ondarru eta Mutriku artean dagoan hondartzan, garai baten lujuzko hotela, geroago seminarioa eta azkenean kuartela izan zan eraikin multzoa, Estaduko andren kartzela handiena bihurtu eben, Saturrarango Espetxe Zentrala izenagaz. Bertan, milaka andra eta ume giltzaperatuak egon ziran 1938tik 1944ra arte.

2008tik aurrera UPV-EHUKo Kriminologia Euskal Institutuko lantalde batek Espetxe honen inguruko ikerketa zabala egin eban. Honen frutua *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil española y la primera posguerra. Hacia la recuperación de su memoria* liburua da (Interneten PDFa doban eskuragarri). Idazki honetan testuinguraketa historikoa eta juridikoa egiteaz gainera, presoan espediente personalen barri emoten da. Espedienteetan presoan biografia penitentziarioa azaltzen da. Dana dala, ezin izan genduzan danak arakatu arrazoi desbardinakaitik. Topau genduzan espedienteak ez dira preso egon ziran andra guztienak. Asko falta ziran, izan be, espedientea presoagaz

bidaiatzen da, eta horregaitik trasladatako gehienak falta dira. Oñatiko artxibategian 2.100 presoan dagoz, gitxi gorabehera, baina jakin badakigu espetxea irekita egon zan urteetan askoz gehiago izan zirana bertatik pasautako andrak. Gainera, 2.100 hareetatik 620 baino ez daukaguz ikertuta, sailkatuak eta gure datu-basean, izan be, proiekturako diru laguntzea amaitu egin zan. Adituen arabera nahikoak dira datu estadistikoak aurkezteko, eta horixe egin dogu gure liburuan. Honek ez dau esan gura istorio personal asko argitaratu barik geratu ez diranik.

Ustea kontrakoa bada be, sano porzentaje txikia izan zan Saturraranen preso egon ziran andra euskaldunak, % 7,5a baino ez. Zehaztuz, andra honeen % 0,2 arabarra zan, % 0,8 gipuzkoarra, %1 nafarra eta % 5,5 bizkaitarra. Ikertutako espedienteen artean andra lemoaztar batena azaldu jakun. Arratier gehiago egongo ziran noski, baina lehen aitatutako arrazoiakaitik (espediente Oñatin ez egotea edo ikertutakoen artean ez aurkitzea) guk ez dogu izan honen barri idatzia.

Oñatiko Gipuzkoako Artxi- bo Historiko Probintzialeko 2.783/0/1 zenbakidun kutzako 33. espedienteeko protagonis-

tea Lemoan jaio zan 1916an. Saturraranen 1938ko martiaren 1ean sartu zan, hau da, espetxea inaugurau eta 3 hilabetera. Bertara Bilboko Prisino Probintzialetik heldu zan, non 1937ko abuztuaren 3tik egoan. Espedientearen arabera, 22 urteko andra hau ezkongabea zan, nekazal ingurukoa, ez eukan seme-alabarik eta baekian idazten eta irakurten. Atxilotua izan baino lehen behar egiten eban merkataritza arloan. Ez dau bere erlijinoa zehazten eta ez ei da ohiko delinkuentea. Bere zigorrari jagokonez prozedura sumarisimoa izanik Bilboko Gerra Kontseiluak ezarri eutsan, matxinada delitua leporatuz. Honegaitik espetxeko 6 urte eta egun 1eko zigorra jaso eban andra honek. Epai irmoaren data 37ko abuztuaren 12koa izan zan, hau da, espetxean sartu eta 9 egunetara. Zigorraren bukaera datak 1943 urtea beharko eban, baina bere ibilbidea galtzean jaku 1938ko bagilaren 25ean, papel baten arabera "beste espetxe batera mobidua izan zalako" jakin barik nora, zelan eta zergaitik.

Balio daiala andra lemoaztar honen adibidea Arratian eta hainbat lekutan bizi izandako sufrimendu ixilaren oroimena bizirik mantenduteko.

andernaiz@hotmail.com

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak · Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

OLINPIADAK**Arratiako kirolariak joko olinpikoetan parte hartu dabe historian zehar**

Erauzkinek eta Artetxek Londonen eta Zuberok Mexicon parte hartu eben.

Jon Urutxurtu

Egun honeetan Londonen jokatzen dabizan Joko Olinpikoak aukerea emoten deuskue Arratia aldean izan diran hiru kirolari olinpiko gogoratzeko: Felix Erauzkin zeanuriztarra, Alejandro Artetxe igorretzarra eta Luis Zubero zeberioztarra.

Aurtengoak legez, 1948ko Joko Olinpikoak London-en jokatzen ziran eta bertan hartu eben parte Erauzkinek eta Artetxek. II. Mundu Gerrateagaitik 1940 eta 1944 urteai egokiazan jokoak bertan behera geratu ostean, 1948an, jadanik bake garaian, XIV. Joko Olinpikoak jokatu ziran Londonen garagarriaren 29a eta abuztuaren 14aren bitartean. Urte gogorak ziran hareek eta bizi zan krisi ekonomikoak antolaketan be eragin handia izan eban.

Felix Erauzkin

Felix Erauzkin (1907-11-20) zeanuriztarra, Zezilio Erauzkin Gorbeiaiko artzainaren semea zan. Txikitatik atletismorako zaletasuna euki eban eta 1928tik aurrera txapelketa ofizialetan lehiatzen hasi zan, euskal barra, jabalina, disko eta pisu jaurtiketetan parte hartuz. Mundu mai-

**Felix Erauzkin.**

lan be ospe handia lortu eban, euskal barran oinarrituz asmatutako jabalina jaurtizteko eragaitik: Erauzkin estiloa.

1948an, berrogei urtegeaz, bere sasoirik onena galduta eukanean, disko jaurtiketako Espainiako marka hobetzea lortu eban Portugaleten, 44,49 metroko markaz. Marka horri eta urte horretan lortutako Espainiako txapelketari esker, Londoneko Joko Olinpikoetarako txartela eskuratu eban.

Wembley estadioan jokatutako jokoetan mundu mailako disko jaurtitzaila onenakaz neurtzeko aukerea izan eban Erauzkinek,

Gordien eta Consolinigaz besteak beste. Dana dala, finalera sailkatzerik ez eban lortu, 43,66 metroko jaurtiketaz kanporatua izan zan eta.

Alejandro Artetxe

Alejandro Artetxe igorretzarrak (1923-2-15) boxeoa hartu eban parte, semiastunen kategorian (81 kilo), hain zuzen be. Abuztuaren 7an, Vital L'Oste belgiarren aurka burukatu eban. Kronikak inoenez norgehiagoka oso parekatua izan zan eta Artetxek hasiera indartsua egin eban K.O.-aren bila, baina belgiarrak ondo eutsi eban arratiarraren eraso, amaieran puntuetara nagusitzea lortuz eta Alejandro Artetxe kanporatuz.

**Artetxe Igorreko boxeolaria.****Luis Zubero zeberioztarra.****Luis Zubero**

Luis Zubero zeberioztarrak (1948-3-18) 1986an Mexicon jokatu ziran XIX. Joko Olinpikoetan hartu eban parte, txirrindulari zeberioztarrak dominarik ez eban lortu, bere zeregina Tamamesentzat gregario lanak egitea izan zan eta 28. tokian sailkatu zan.

FUTBOLA**S.D. Lemona 79 urteko ibilbidea egin ostean, disolbidu egin da, zorrak dirala-eta**

Hirurogeita hemeretzi urte ostean, zorrak dirala eta, agur esan dau Sociedad Deportiva Lemona; izen berberagaz ez bazan izan be, 1923an jaio zan Arratiako futbol talderik beteranoenak. Aurrerantzean Lemoan egongo dan futbol talde barria Club Deportivo Lemoaberri izango da.

**Lemoako taldearen armarria.****Jon Urutxurtu**

Arratia aldean futbolak zuztarrak bizkorren botako dauzan herria Lemoa izan zala esan daiteke. José Gil Echevarriak *Cincuenta años de la S.D. Lemona* liburuan dinoanez, "1921 edo 1922 inguruan Lemoako Elizondo auzunera bizitera joan nintzanean, San Inaziotik eleizara doan kamino ondoko bolatokian bolara jolasten eben mutiko gehienak (...). Beste batzuek gomazko pelota batez futbolea egiten eben Atxetaraino heltzean zan landan (...). Kirol barri hau indarra hartzean joanez, erreglamentuko baloi bat erostea ebatzi neban eta futbolaren sukerra gehitu egin zan, domeka goiz, arrasti eta gauetan be, San Inazio, Lemorieta, Tailerrak eta abarreko lagunak jolasten gendularik. Jolasten genduanen artean, Aurelio kurtiduetakoa, Alberto Agirre, Mimentzatarak, Periko Barrenetxea eta abar gogoratzen dodaz".

Hurrengo pausua, partiduak jokatzeke zelai bat lortzea izan zan, eta José Ramón Abrisketa abadearen laguntzaz, gaur egungo futbol zelaia dagoan soloak alokatu ebezan. Jarraian kamisetak egin —zuri eta gorri kolorekoak— eta taldea eratu zan, bere egoitza Perfekto Amorrorturen tabernan egoan. Lehen talde hau 1923an sortu zan, eta Sagarra izena jarri eutsien. Hemen kokatu behar da S.D. Lemona oinarria.

S.D. Lemona, 1925ean

Sagarrak inguruko herrietako taldeen aurka jokatzen ebazan partiduak, baina ez zan futbol talde federatua. 1925. urtean ebatziko dabe federatzea, bide batez izena be aldatu egingo dabe, aurrerantzean Sociedad Deportiva Lemona deituz. Izen barriagaz batera koloreak be aldatu egingo dabez, eta alkondara gorria mangel punta eta kuello baltzez eta fraka baltzak jantziko dabez. Lehenengo presidentea José Gil Echevarria izan zan.

1926-1927koa izango da lemoaztarrak Bizkaiko Txapelketan lehenengoz parte hartuko daben denporaldia.

Lehenengo aldiko Lemoako futbolariak jagokienez, ez dago barri larregirik, baina 1934-1935 denporaldiko fitxak gordetzen ditu Jose Luis Zugazagak eta honako izen honeek agertzen dira: Luciano Echevarría, Zenón Zalvidegoitia, Luis Goiria, Pedro Uriarte, Alvaro Barrenechea, Jesús Elejaga, Pedro Gurtubay, Federico Zabala, Eusebio Leiza, Iñaki Cenarruzabeitia, José Zalvidegoitia, Luis Fernandez, Jesús Barcena, José Langara, Leonardo Zuloaga, Vicente Urquijo.

Goi mailako jokalariek

Bere historiaren hirurogeita hemeretzi urteetan, goi mailako taldeetan jokatu daben herriko jokalariek be atera dira Lemoako harrobitik, hona hemen batzuk: Separio Mimenzak Valentzian jokatu eban, Jose Bilbaok Athleticen, Serafin Olivaresek Osasunan, Ealok Valladoliden, Betzuenek Athletic eta Herculesen, Barandikak, Bartzelona eta Betisen, eta Gonzalo Argiñanok Valladolid eta Burgosen.

Zorrak dirala eta, joan dan garagarriaren 6an Sociedad Deportiva Lemona disolbidu egin zan, azken urteotan 2.B mailan jokatu eta azken bi urteotan Federazio Koparen azpitxapeldun izan ondoren. Aurrerantzean Lemoan egongo dan futbol talde barria Club Deportivo Lemoaberri izango da.

AIZKOREA

Xabier Garcia 2. mailako Bizkaiko aizkora txapeldun



Xabier Garcia.

Erredakzioa

Xabier Garcia "Utxu" da aurtengo Bizkaiko 2. mailako aizkora txapelduna. Txapelketa Gemikan ospatu zan garagarilaren 7an eta honeek izan ziran partaideak eta sailkapena: Xabier Garcia "Utxu", Beñat Lekue, Aritz Oregi eta Done Intxausti. "Gogorra izan zan. Lau enbor ebegi behar izan genduzan eta azkenengoan ebatzi zan dana" azaldu deuto irabazleak BEGITUri.

Lemoaztarra orain dala lau urte hasi zan aizkora entrenetan Julen Mendietagaz. Futboleko botak eskegi eta kirol barri bat probatzearen sartu zan aizkora munduan.

ESKALADEA


Groenlandian izango da Txikonen erronka barria

Erredakzioa

Abuztuaren 17tik urri lehenengoaren 3ra arte, Groenlandian izango da Alex Txikon abentura eta zinema buztartzen dituan proiektu baten parte hartzean. Han Ulamertorsuaq pareta, 1830 m. eta munduko horma onenetakotzat jotzen dana, igoten saiatuko da lemoaztarra. Proiektuari Next Stop Greenland izena ipini deusie.

Ulamertorsuaq horma eskalateko bi edo hiru egun behar dira eta eskalatzaileak bertan eskegita egingo dabe lo. Tontoretik salto egingo dabe taldeko batzuek eta lurretik 100 metrora dagozanean zabalduko dabe jausgailua. Lara Izagirre zine zuzendariak abentura hau grabaiko dau honen gaineko dokumentala egiteko. Ordubete inguruko dokumentala egin gura dabe Mendi Film Festivalen aurkezteko.

Partaideak Alvaro Bultó, Santi Corella, Toni Lopez, Alex Txikon, Carlos Suarez eta Iñaki Ituarte dira.



PELOTEA

Arrese Euskadiko txapelduna

Erredakzioa

Imanol Arrese Igorreko pelotariak, Pelola Federazioak antolatutuen dauan Euskadiko elite mailako binakako txapelketea irabazi dau. Altunagaz, Santxo-Tolosa bikoari irabazi eutsien (22-16) Zumarragako finalean.

Maila ez profesionaleko txapelketarik inportanteena da hau.

Bizkaiko txapela lortu dau Kimetz Zapikok

Eskuz banakako Bizkaiko txapelketa irabazi dau Kimetz Zapikok.

pelketan, barriz, Kimetz Zapiko dimoztarrak lortu eban txapela gaztetxo mailan. Partidua Gor-

dexolan jokatu zan garagarilaren 8an, Zaldibarko Jon Iparragirre-
ren kontra.



Imanol Arrese bere jarraitzaileakaz.

SEGA

Intxaurre zeanuriztarra Bizkaiko segalaririk onena

Jon Urutxurtu

Jon Intxaurre zeanuriztarra jantzi dau 2012ko Bizkaiko segalarien txapela. Abadinoko udalerrian, Basaguren jatetxearen ondoko zelaietan jokatu zan txapelketea garagarilaren 28an, arrastiko 18:00etatik aurrera. Segalariak lan egiteko eguraldi freskoa egin eban, eta Arratia aldeko jente ugari hurreratu zan txapelketea ikustera.

Ordu beteko saioa egin behar eta lau segalari —arratiar bi tartean— kodainan: Jon Intxaurre, Zeanurikoa; Jaime Atxa, Areatzakoa; Gondra,

Errigoitiko, eta Maguregi, Artzentaleskoa. Dana dala, ordua bete baino minutu batzuk lehenago arlo guztiak ebegi ebazan Jon Intxaurre eta han amaitu eben euren beharra kodainan.

lari guztiak.

Landa ondo prestatuta egoan, azpi onagaz, nahiz eta toki batzuetan zuloak azaldu. Irabazteko faborito nagusiak Jon Intxaurre eta Maguregi 59 urteko beteranoa ziran, eta Intxaurre ez eban hutsik egin, 2.459 kilo bedar ebagiz eta txapela jantzi.

Sailkapena era honetan geratu zan:

1. Jon Intxaurre, 2.459 kilogramo;
2. Maguregi, 2.207 kilogramo;
3. Atxa, 1.876 kilogramo;
4. Gondra, 1.632 kilogramo.



Jon Intxaurre txapelduna.

ellauri
HOTELA
Naturazko sasoak
Landa Turismoa
Enpresa Zerbatakoak
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

habia arkitektura monika agirre zamakona
Tif. 690 18 16 42
Proiektuak - Obra zuzendaritza
Zaharberritzeak - Igogailuak
ITE - informeak
Aholkularitza teknikoak
Jarduera proiektuak
Administrazio tramiteak
Zure neurria
egindako
proiektu eta
aurrekontuak
www.habia-arkitektura.com

BICIS
Arratiarren
denda
Tel. 94 631 32 28
jeanm@biciarrati.com
Gogorri Martiñel kalea, 12

**RUGBY
TABERNA**
•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
ARRATIKO
ESKORRAK
arratiko.zekorak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako
instalazioak s.l.**
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbatakoak eta mantentze lanak
Igorreko Industriak, Pab. 07
Tel. Fax: 94 673 62 76
819 736 516
48143 Igorre Bikoia

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa
Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima
Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

KAROBIA

Karobia, auzo-bazkaria eta bola txapelketea Otzerinmendiko sanjustoetan

Abuztuaren 4an, goizeko 11:00etan isiotuko dabe karobia.



Karobia isiotuten.

Jon Urutxurtu

Aurreko hamasei urtetan gertatu dan legez, aurten be karobia isiotuz emongo jakie hasierera Otzerinmendiko (Zeanuri) San Justo jaiak, eta bertara hurreratzen diranak, karegintzearen gorabeherak ezagutzeko aukerea izateaz gain,

Arratiako erromeria herriko eta bitxietako batez gozatzeko aukerea be izango dabe.

Orain dala hamazazpi urte berreskuratu eban Ipizki Taldeak, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, 1950etik bertan behera itxita eta hondatuta egoan San Justoko karobia, eta ordutik

hona abuztuko lehenengo aste-goinean martxan ipinten dabe. Goizeko 11:00etan isiotuko dabe kare-labea Juan eta Julian Aranek eta barriro be ke zurixka bat San Justoko haretxen artean igoko da Gorbeia mendiaren tontorra topau guran; domeka eguerdirantza, kare bizia oka egiten hasiko da karobia. Isiotzeko ekitaldia amaitu ostean, bertara hurreratzen diran guztien artean hamaiketako bananduko dau Zeanuriko Iñaki Arrandegiak: sardinak, pamitxea, urdaia, ardaoa eta ura.

Jaien egitarauak jarraipena izango dau eguerdian, San Justoko haretxpean auzo-bazkariagaz. Bazkarian, gura daberen guztiak parte hartu ahal izango

dabe, baina aurretik izena emonda. Bazkalostean, arrastiko 18:00etatik aurrera, Trikitilari Gazteen XXXII. Txapelketearen kanporaketea jokatu da.

Hurrengo egunean, domekan, 12:00etan mezea egongo da eta meza ostean maiordomoak barauskarria bananduko dau. 13:30ean paella txapelketea izango da.

Arrastian, 17:30etik aurrera bola txapelketea jokatu da eta amaiera emongo jakie 2012ko San Justo jaiak. Dana dala, Otzerinmenditarrek eta zeanuriztarrek zain eukiko dabez Otzerinmendiko kofradian bertan egun batzuk geroago, abuztuaren 10ean hain zuen be, ospatuko diran San Lontzo jaiak.

San Justoko jaiak

Abuztuaren 4a, zapatua
11:00etan Karobia isiotutea. Juan eta Julian Aranek isiotuko dabe.

Isiotu ostean, hamaiketako, Iñaki Arrandegiak emonda.
14:30ean auzo-bazkaria. Bazkarian parte hartzeako, izena emon garagarilaren 31 baino lehenago honako telefonora deituz: 94 673 92 50.

18:00etan Trikitilari Gazteen XXXII. Txapelketako kanporaketea.

Abuztuaren 5a, domeka
12:00etan Mezea. Meza ostean barauskarria.
13:30ean Paellen aukezpena.
17:30ean Bola txapelketea eta Mus txapelketea.

FANZINEA

Mikroipuin erotikoen fanzinea argitaratu dau Karabie Gaztetxeak



Erredakzinoa

Blogean <http://www.blogak.com/karabie/mikroipuin-erotikoen-masterra-blogean-en-irakurri-daitezke-lemoako-karabie-gaztetxeak-antolatutako-mikroipuin-erotikoen-masterrera-aurkeztutako-mikroipuinok>, eta orain, papelean be badago ipuin erotikoak irakurtea. Master hone tan dozena bat mikroipuin inguruk hartu eben parte.

Testu eta ilustrazioak fanzine bat argitaratu dabe Gaztetxe-koak. Fanzinea Lemoako jaietan aurkeztu eta euro baten prezioan ipini dabe salgai.

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARA OTZ
Lanetan O Jabetzen!

Herri Ugarana 2 et. 48141 Oñati - Zubia www.aramotz.com

Kendall Languages
- Matrikulea zabalik 2012-2013 ikasturtea
- Ikasturtearen hasierera irailaren 17an izango da
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 75 48 · www.kendall-languages.com

GALANTA
Bamutik jarzteko
Zugandik sano hurbil
Lehendakari Agirre 25, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Euzarfoa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telfo. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

belagorri
mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakontzat elikagaiak
estetiziana
Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

bbk

HERRIKO BENTA
HERRINO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

AURRESKU TXAPELKETEA Txapela Portugaletera

Erredakzinoa

Ibabe Beristain Portugaletekoa izan zan Igorreko XI. Aurresku Txapelketaren irabazlea. Asier Etxezarraga eta Julen Bilbao igorrezarrak, barriz, laugarren eta bosgarren egin eben hurrenez hurren. Jantzarien maila ona izan arren, jente gitxi hurreratu zan Kultur Etxera aurrekulariak ikustera.

Balorazino ona egiten dabe an-

tolatzaileak parte hartzailei jagokie-
nean, baina ez da bardin gertatzen
jentearen erantzuna baloratze-
rakoan. "Jentearen erantzuna oso
tristeza izan da, espero genduan
baino jente gitxiago egon zan.
Dana dala, datorren urtean, ezer
arrarorik ez bada pasetan, segiduko
dogu txapelketea egiten" dino Ju-
len Bilbao antolatzaileak Igorreko
Udalaren eta beste laguntzaileen
laguntzea eskertuz.



Julen Bilbao igorreztarra.

EDADEKOAK

Herri kiroletan nagusitu ziran Igorrekoak



Igorreko taldea.

Erredakzinoa

Igorreko kiroldegian edadekoen-
tzako gimnasia parte hartzean
dabena Sestaon jokatu zan Adin-
duentzat Bizkaiko Lehenengo Kirol
Topaketan parte hartu eben eta
herri kiroletan nagusitu ziran. Izan

be, txinga-eroate, sokatira eta txokor
batze probak irabazi zituen gureak.
Topaketa honetan Igorrekoak,
Sestao, Santurtzi, Erandio, Leioa,
Galdakao, Basauri eta Getxoko par-
taideak neurtu ziran. Baloi jokoak,
petanka, bolajokoa eta beste kirol
batzuetan be lehiatu ziran kirolariak.

Kirola baino gehiago izan zan
topaketea Pili Ortuzar Igorreko kirol-
degiko begiralearen eretxian. "Sano
giro ona egon zan. Probak bakarrik
ez, jantzak, afaria... egun bete-
betea". Izan be, egitaraua goizeko
10:00etan hasi zan eta afalosteko
jantzaldiagaz amaitu zan.

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BISKARAZ
ZEIN ERDARAZ

Balorazino: A1, A, B1E, B

Lehendakari Agirre 35
Tfn: 94 612 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@ovakol.net

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etako produktok

- Txerriak
- Odoletak
- Bostantzak
- Salbitzak
- Harburgak

Arrotziako produktok

- Baserriak
- Odoletak
- Baserri arrotziak
- Txerriak
- Harriak
- Gortxoak

Merkeak eta lehiaketa
Lehendakari Agirre 35
94 612 71 32

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejatetxe@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

Dia %

PEDRO
AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIXMI KOPIDENDA JAONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA

Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kixmikopi@gmail.com

Umeen moda 0-20 urte

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Quisber
- Arantziaga
- Gortxoak
- Ite
- Hassan

sein

Lehendakari Agirre, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefon: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajiurierra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfn: 94 631 2576 Mug. 647 405 115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultur elkarrizketa

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industriaidea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industriaidea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DOKU KONTUTAN
ONDARIN BEGIZTAN
ASBURUTAN

Sabino Arana, 3 Tfn: 94 612 71 41 - Fax: 94 612 04 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSTRIAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

AGENDEA

ABUZTUAK 3 DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoan aldeko konzentrazioa.

ABUZTUAK 4 DIMA

Artaungo jaiak

ZEANURI

Sanjustoak Otzerinmendin. 11:00etan, karobia isiotutea eta ondoren hamaiketakoa. 14:30ean, auzo bazkaria. 18:00etan, Trikitilari Gazteen XXXII. Txapelketako kanporaketeta.

ABUZTUAK 5 ZEANURI

Sanjustoak Otzerinmendin. 12:00etan, mezea eta ostean barauskarria. 13:30ean, paellen aurkezpena. 17:30ean, Bola txapelketeta eta Mus txapelketeta.

ZEBERIO

Sanadrianak Arginaon. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

ABUZTUAK 10 BEDIA

11:30ean mezea Murtatzen. Hamaiketakoa eta trikitixa. Mus txapelketeta. 17:00etan Briska txapelketeta.

IGORRE

18:00etan futbola. Igorreko 26. Sari Nagusia. Arratia-Durangoko Kulturala Urbieta zelaian.

ZEANURI

San Lorenzo ermitan mezea eta barauskarria.

ZEBERIO

Elizondoko jaiak. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

ABUZTUAK 11 IGORRE

18:00etan futbola. Igorreko 26. Sari Nagusia. Amorebieta-Sondika Urbieta zelaian.

ZEANURI

Andra Mari jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

Etzera bueltetako autobusa autobus geralekuan 02:30ean eta 04:30ean.

ABUZTUAK 12 IGORRE

18:00etan futbola. Igorreko 26. Sari Nagusia. Finala Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 15 IGORRE

Andramari jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEBERIO

Andramari jaiak Zeberioan. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

ABUZTUAK 16 BEDIA

11:30ean, mezea San Roke ermitan. 12:30ean, barauskarria eta trikitixa.

DIMA

Olazabalen jaiak.

ABUZTUAK 23 AREATZA

Areatzako jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 24 AREATZA

Etzera bueltetako autobusa autobus geralekuan 02:30ean eta 04:30ean.

ABUZTUAK 26 ZEBERIO

Sanbartolomeak Uxarren. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

ABUZTUAK 30 ZEBERIO

San Antolin jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ABUZTUAK 31 IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, preso eta errepresaliatuen aldeko konzentrazioa.



Vendetta Zeanuriko Andra Mari jaietan abuztuaren 11n

Vendettak, ska eta punk talde nafarrak, Zeanurin joko dau abuztuaren 11ko gauean, andramari jaien barruan. Taldea 2009an sortu zan eta disko bi atera dauz: *Vendetta* (Gor, 2009) eta *Puro Infierno* (Baga biga, 2011). Nafarrak, Arratiako Eskean Kristo taldearen ostean joko dabe zapatu gaua animetako.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behea (Igorre).

DANERIK ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzen dan baseri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baseri edo etxea gura dogun bi bikote gara. 685 707 176 Eider.

TXAKURRA GALDU DA

Txakurra baseritik eskapadau da katea apurtuta eta falta handia asmetan dogu. Topau ezker, ipini kontaktuan BEGITUguz.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefonoa honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan

dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako sariduna:

1

Txakolin kajatxoa.


Pedro Jose Ormazabal (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Dezente, polito. 2.- Letra bat. Gizen, potolo. 3.- Indioaren sinbologia. Boroa. Bigarren letra. 4.- Basamortu. 5.- Lehenengo emakumea. Tik..., erlojuaren hotsa. 6.- Arteka-marteka. 7.- Uranioa. Birritan, umeen berbetan, jo. Astatoa. 8.- Umeen berbetan, min. Bokala. 9.- Gauza bat biren artean.

GOITIK BEHERA

1.- Bardindu. Letra bat. 2.- Nitrogenoa. Emakumezkoarentzat bere gurasoen semeetako bakotxa. Umeen berbetan, mosu. 3.- Aluminioa. Surluze. 4.- Bikain. Estalgi. 5.- Legorte, sikite. Utikan. 6.- Zerki atzikia. Akatsa. Bokala. 7.- Oxigenoa. Amaitu.



Topau bizikleta batek euki ahal dituan zazpi atalen izenak.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | S | T | E | U | G | O | N | E | A |
| F | L | A | T | A | U | G | O | L | U |
| S | A | O | N | E | R | F | U | E | K |
| O | B | R | A | Z | P | I | K | E | A |
| M | I | L | E | L | I | K | R | U | N |
| O | T | X | O | A | L | R | E | B | A |
| K | A | U | D | I | A | U | J | A | Z |
| E | H | I | S | D | Z | O | R | T | E |
| J | O | K | I | A | E | G | U | A | L |
| O | R | O | B | A | L | B | U | L | A |
| S | A | R | I | N | A | U | G | A | R |
| A | N | E | U | Z | K | I | A | D | E |
| L | U | M | A | T | E | G | R | E | Z |
| I | Z | K | A | T | E | A | R | P | O |
| X | I | L | A | U | K | G | E | B | A |

AKIMIKO

Aitziber



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com



ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zain erdioraz

Agine Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unabuz@euskainet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Niguel) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00



E. Agirre, 7.
48120 Igore (Bizkaia) Tfnoa: 94 632 64 79

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante
Montero**

Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903.653

NIK KHAOS

KHAOS perfektua eszenarioaren gainean

Nik Khaos taldeak eredu barria ekarri dau Arratiako musika eszenara; urte bi eta erdi igaro dira taldea sortu ebenetik, eta gero eta indartsuago dagoz. Patxi Izak (bajistea), Ugaitz Lekuek (bateria), Joseba Esnaolak 'Roti' (gitaristea), Inigo Mintegik (abotsa) eta Amaia Sagredok (abotsa, Lorebeltz taldearen abeslari ohia) osotuten dabe taldea, eta nork bere ideak, berari gustetan jakona, bere paranoiak eta bere gogoak eskeintzen deusaz proiektuari. Horretan oinamituta ebatzi eben taldearen izena. NIK, kide bakotzak egiten dauan ekarpen personalagaitik, eta KHAOS, hori dalako eszenarioaren gainean sortutuen dabena. Izan be, aitortu deuskuenez, zuzenean asko irabazten dabe eta espektakulo ikusgarria eskeintzen dabe, eta hori egiaztatzerak konbidau gaitue abuztuaren 10ean Zaratamon emongo daben kontzertura.

Erredakzinoa**Zelan bururatu jatzuen talde bat sortzea?**

Iza: Gabonzaharretan, Urko Santxek gure lehenengo gitaristek talde bat egitea proposatu eustan. "Burutik jota hago ala?", izan zan nire lehenengo erantzuna. Baina berak barriro be ekin eutsan: "Beguratu, mutiko ho-

rek bateria jotzen jok!". Mutil ha Ugaitz Lekue zan, beragaz egin genduan berba eta orduan hasi zan dana.

Lekue: Bai, erreza da taldearen sorreraren eguna gogoratzea: 2010eko urtailak 1. Egun haretan erronka bat finkatu genduan: hurrengo urtean, 2011ko zezeilean, Poxpolu Rock-en parte hartzea. Segiduan hasi ginan lanean, abestiak egiten, kantantea

topetan... Baina hile asko pasau ziran Durangon, jai baten, ni Mintegiren-gana hurbildu nintzan arte. Itaundu neutsan ia kantetan eban inor ezagutzen eban, eta hemen haren erantzuna: "Nik kantau ez, baina 'dar el cante'...". Egunen baten lokaletik pasetako esan neutsan; bageunkan fitxaje barria.

Mintegi: Euren ensaio lokalera hurreratu nintzanerako Roti eta Joseba Cid taldean egozan. Joseba Cid zan kantantea, baina nik probau egin gura izan neban edozelan be. Cidek taldea itxi ebanean, neuk kantetan neban dana, baina lar zan niretzat kontzertu osoan abots hori mantentidutea. Holan hasi ginan barriro kantante bila, eta Amaia agertu zanean guk sinistu be ezin genduan egin Lorebeltzen abeslaria izandakoak gugaz kantau gura izatea. Bera sartu danetik publiko zabalago batengana heltzean da Nik Khaos, musika hain gogorra gustetan ez jakon publiko batengana.

Taldea egun batetik bestera

sortu eta segiduan hasi zinien jotzen. Baina zelan aukeratu zenduen musika estiloa?

Iza: Urko eta biok egonda gengoan rock eta punk bandetan, eta hortik urten egin gura genduan. Baina egia da taldean bakotzak gura dauana egiten dauala.

Lekue: Hasieran egiten genduazan abestiak askoz be heavy-agoak ziran. Apurka-apurka, metal-era jo dogu.

Mintegi: Gure artean esaten dogu nekazal-metal musika egiten dogula, Arratiakoak garalako danok eta bakotzak barruan daukana ekarten daualako, baserrikoa azken baten. Gainera, eszenarioan ikusten gaituenean, jenteak pentsetan dau: "Borono honek zer egingo dabe ba?". Eta gero, gu entzutean, flipauta gelditzen dira.

Sagredo: Direktora da gure amarik potenteena, bai. Eta esaten dogunean bakotzak berea emoten dauala, egia da. Hain zuzen be, lan egiteko moduak engantxau nau Nik Khaosera. Sormen prozesuan, normalean, bajistea edo bateria erritmo edo melodia bat jotzen hasten da, gero gitarrera batzean jako Rotiri momentuan urtetzen jakonagaz, eta horren gainetik Mintegi eta biok okurriduten jakuna kantetan dogu. Ensaio batzuetan emon izan dogu ordu eta erdi holan, parau barik jotzen; gero, bitartean, egun batzuetan, abesti zaharrai ekiten deutsegu, sortutako kantu barria birbildu aurretik. Daukagun giro onari esker egin geinke holan behar, familia txiki bat garalako eta alkarri edozein eretxi esateko askatasuna eta konfiantzea daukagulako.

Belaunaldi diferenteak egiten dabe bat Nik Khaos-en; Lekue, Mintegi eta Sagredo oso gazteak dira, eta Izak eta Esnaolak, barriz, askoz be esperientzia luzeagoa daukie musikan. Zelan lortzean dozue danok erritmo berean egitea lan?

Esnaola: Asko ensaietan dogu. Astean hiru egun, eta zapatuak ia osorik emoten doguz lokalean. Holan egiten dogu, batez be, ondo pasetan dogulako eta gauzak ondo egin gura doguzalako. Musikak bizia emoten deusku eta guretzat erreza

da dan-dana emotea amets honen alde. Edozelan be, nik ez neuke hau erantzun beharko, gazteena naz eta! (Barre egiten dau).

Ugaitzek dino batzuetan lar ensaietan dabela, eta Amaiak argi ikusten dau bando bi dagozala, eta nagusienak (Patxi eta Roti) serioagoak dirala lan egitean. Baina Mintegik emoten deusku taldearen funtzionamentua ulertzeko gako: "Momentuaren arabera da hori... Gaueko ordu txikitian rolak trukutzen doguz, eta orduan Patxi eta Roti esaten deuskue 'nor dago kaskaute oin?'".

Igaz Bilboko Aste Nagusian emondako kontzertua da taldearen lorpenik handiena. Horrek ate asko zabaldu deutsez eta gero eta eskaera gehiago daukiez Arratiatik kanpo joteko. Hori dala eta, diskoa grabetako momentu aproposa izan leitekela pentsetan dabe, baina lehenago apur bat gehiago esperimentau gura dabe eta, akaso soinu elektronikoak gehitu euren musikeari. Orain arte hiru abesti grabau dabez, azkenengoa "Elkartasun izarrak", Iker Yurrebasoren berbakaz egindakoa; Arratia Rock jaialdian aurkeztu eben. Eta hori da euren promozino bakarra. Hori eta logoa. Arrakasta itzela dauka logoak, kamisetetan zein pegatinetan inprimata. Esate baterako, Kaotiko taldearen gitaristek Nik Khaosen kamiseteta jantzi eban Viña Rock-en jo ebanean.

Inigo Mintegi eta Amaia Sagredok BEGITU 10 urte kantan kolaborau dabe eta proiektuaren balantze ona egiten dabe: "Oso idea ona izan da Arratiako taldeak batzea, eta esentziak eta estiloak nahastea abesti berean. Orain arte sekula ezer grabau ez dabenak aukerea izan dabe mundu honek zelan funtzionetan dauan ikusteko: Magic Box estudioan grabetea, kolaborazioak egitea... Gainera, giro itzela sortu da danon artean!" Taldearentzat be onuragarria izan dala uste dabe, abeslari bien abotsak sartzean diranean jenteak errez igarri leikelako Nik Khaosen ikutua.

Nik Khaos taldegaz harremanetan ipinteko: nikkhaos@gmail.com edo www.myspace.com/nikkhaos.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

ALKIZABAL

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

BOLUNBURU POLIGONOA
 Amorebieta-Lemoa bidea
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
 48330 Lemoa (Bizkaia)












• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
 • Garraio zerbitzua.